

ZERBITZUEN AGIRIA ERRIBERAKO MERKATUA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Erabiltzaileak eskubide hauek ditu:

- Berdintasunez, duintasunez eta errespetuz hartuak izatekoa.
- Produktu freskoen eskaintza zabala izatekoa, konpetentzia askean eta era ezberdinetako saltokien artean.
- Osasungarritasun eta garbitasun egoera onean dauden instalazioak erabiltzekoa.
- Erosketak ingurune seguru batean egin ahal izatea, libre mugitzeko oztoporik gabe.
- Zer saltoki mota dauden eta non dauden jakiteko informazioa eskuragarri izatea.
- Azokaren funtzionamenduari buruzko informazioa eskuragarri izatea: ordutegiak, ekitaldiak, jarduerak, eta abar.
- Azokako instalazioen baitan antolatutako ekitaldi eta jardueretara joatekoa.
- Azokan eskaintzen diren bestelako zerbitzuak erabiltzekoa.

Erabiltzaileak betebeharrak hauek ditu:

- Langileak errespetuz eta duintasunez tratatzea.
- Azokako instalazioak modu egokian eta errespetuz erabiltzea.
- Azokako zaintzaileek emandako agindu eta jarraibideak betetzea.